



## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektua aurrera eramateko, hau da, gure produktuak ekoizteko lehenengo inektuei buruzko ikerketa egin beharko dugu, hauek ekoiztu, eta ondoren saldu beharko ditugu. Hori dena gure takdeak soilik egitea ezinezkoa denez, ezinbestekoa izango zaigu beste hainbat bazkide eta hornitzaileen lankidetzaz izatea.

Gure proiektuan ezinbestekoak diren produktuak bitxoen proteinen bitartez egingo ditugunez eta hortan adituak ez garenez, Biologiako lizenziatu bat gurekin elkarlanean izango dugu, Ainhoa Etxeberria Larraza, Euskal Herriko Unibertsitateko ikasle ohia dena. Doktoretza biokimikan garatu zuen, eta orain inektuekin lanean dabilena. Gehien bat, hasierako prozesuan murgilduta egongo da.

Bestalde, produktuen ekoizpen eta diseinurako ingeniari kimika ikasten dabilen ikasle baten kooperazioa izango dugu, Eñaut Agirre. Bere gradu amaierako lanaren gaia inektuen bidezko elikagaien lanketan egitea proposatuko diogu, eta modu honetara bi elikagaien ekoizpenaren prozesuaz arduratuko da.

Nahiz eta ez dugun gure denda propioa edukiko, ekoizpenarekin amaitutakoan gure produktuak gure bezeroei eskaintzeko bidea Euskal Herriko herri eta hiri desberdinetako belardenda eta okindegiak izango dira. Zehazki 21 denda izango ditugu, [DENDAK](#).



Horrez gain, produktuak bezeroei zuzenean saldu arren, gure produktuak eskaini nahi dituzten jatetxeekin ere elkarlanean arituko gara. Eta jatetxeaz ez ezik, *ausolan* enpresarekin harremanetan jarriko gara gure produktuak haiek zerbitzatzen dituzten eskoletan eta zaharren egoitzetan zabaltzeko.

Enpresa batean marketing-a oso garrantzitsua da, horregatik publizitateari dagokionez, Espainia mailan, eta batez ere Euskal Herrian, oso ezagunak diren hiru "influencer"-ekin kooperatuko dugu. Hauek Sara Baceiredo, Gotzon Mantuliz, eta mundu honetan "Iñaki Gastro" ezizenez ezaguna dena izango dira.

Bitxolabelen marketing-a ezinbestekoa izango da, produktu berri bat delako eta entomofagia gure herrialdean komuna ez delako. Horretarako, Donostiako Tabakalerarekin aliantzan ibiliko gara ekintzak egiteko.

Hau kontuan izanda, gure produktuak herri desberdinetako belar denda, okindegi jatetxeak, eskola eta zaharren egoitzetara eraman beharko ditugunez hauek bertara garraiatu beharko ditugu. Horretarako *Correosen* eskutik jardungo dugu, Euskal Herritik zehar gure produktuak banatzen lagunduko digu, izan ere, gu bakarrik egitea ezinezkoa litzake.





Domeinuari dagokionez, oso alor garrantzitsua iruditzen zaigu, izan ere, behar bezala patentatuta baldin badago, gobernuarekin arazoak eta beste enprekin gatazkak saihestuko ditugu, eta bide batez, gure enpresa babestuko dugu.



Bitxolabeleko proiektua finantzatzeko, nahiz eta guk dirua jarri eta horrez gain mailegu bat eskatu, ekintzailtza proiektuak aurrera eramaten dituen METXA izeneko enpresaren laguntza izango dugu, 100.000€-ko inbertsioarekin. Metxak, proiektu duin bat duten pertsona ekintzaileak laguntzeko eta haien ideietan inbertitzeko asmoa du. Hauen inbertsioarekin, gure produktueak ekoizteko, intsektuak ugaltzeko eta ikerketak egiteko laborategi bat izango dugu, proiektua aurrera eraman ahal izateko.

Azkenik, biltegi bezala erabiliko dugun lokala alokatzeko, UGGASA (Urola Garaiko Garapenerako Agentzia S.A.) izeneko agentziarekin kontaktatuko dugu honetarako, ekintzaile berriei laguntza bat ematen diete eta hilabetean 90 euroren truke argi indarra, gasa, Interneta eta alokairua eskura izan ahalko ditugu.



Elkarte guzti hauekin elkarlanean arituz gure proiektua aurrera eramatea askoz errazagoa izango da.